

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

KULTURA ETA KIROL SAILA

171/2022 Foru Agindua ekainaren 23koa. Arte eszeniko eta musikaletan trebatzeko ekintzetarako 2022ko laguntzen epaimahai kalifikatzailea osatuko duten pertsonak izendatzea

Otsailaren 16ko 37/2022 Foru Aginduaren bidez, onetsi zen arte eszeniko eta musikaletan trebatzeko ekintzetarako laguntzen 2022ko deialdia.

Aipatutako deialdiaren 9. artikuluan (Ebazpena eta jakinarazpena), honela ezarrita dago: "Eskabideak balio judizio baten mende dauden irizpideen arabera ebaluatzeko, balioespen batzordean aditu profesional independenteek parte hartu ahalko dute".

Aurrekoa ikusita, eta laguntza eskaeraren helburu diren proiektuen gaietan aholkularitza espezializatua beharrezkoa dela iritzita, esandako epaimahaia osatuko dutenak izendatu behar dira, jasotako eskabideak balora ditzaten. Halaber, adierazten da ezen, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabeko bizitzarako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen indarreko testuaren 20.5. artikuluan xedatutakoa betetzeko, epaimahai horrek gaikuntza, gaitasuna eta prestakuntza egokia daukaten emakume eta gizonen osaera orekatua duela.

Kultura Ekintza Zerbitzuaren buruak emandako txostena aztertu da.

Horregatik, eta dagozkidan ahalmenak erabiliz,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Arte eszeniko eta musikaletan trebatzeko ekintzetarako 2022ko laguntzen epaimahai kalifikatzailea osatuko duten pertsonak izendatzea, haiek ezaugarri egokiak eta dagokien gaiaz ezagutza nahikoa dauzkatela iritzita:

- Jose Luis Ruiz de Gordo Martínez de Albéniz.
- Orzi Acosta Calvo.
- Zuriñe Benavente Claveras.

María Covadonga Pérez Rodríguez Kultura Ekintzako teknikariak jardungo du idazkari.

Bigarrena. Foru agindu hau ALHAOn argitara dadila agintzea, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45. artikuluan ezarritako ondorioetarako, eta guztiek jakin dezaten.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko ekainaren 23a

Kultura eta Kirol Saileko diputatua
ANA M. DEL VAL SANCHO

Kultura zuzendaria
M^a INMACULADA SANCHEZ ARBE